

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

1651

AGINDUA, 2022ko martxoaren 30ekoa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita Fundación Torre Olaso izeneko fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa (1. artikulua) eta Olaso Dorrea Fundazioa izateko izen-aldaketa.

2021eko azaroaren 19an, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren erregistroan telematikoki sartu zen eskritura publikoa, zeina 2021eko azaroaren 19an egiletsi baitzen Roberto Oliver Puértolas Bergarako notario jaunaren aurrean (protokolo-zenbakia: 1.088).

Eskritura publiko horretan sartu zen Fundazioaren patronatuko idazkariak presidentearen oniritziarekin 2021eko irailaren 15ean egindako ziurtagiria, patronatuak 2019ko martxoaren 1ean egindako bilerarena. Bilera horretan, aho batez erabaki zuen estatutuen 1. artikulua aldatzea, izenari buruzkoa.

Fundazioen Erregistroak, 2021eko azaroaren 23ko idazki baten bidez, Fundazioari eskatu zion zuzen zitzala igorritako dokumentazioan atzemandako akatsak, hau da, izenaren erreserba, bat etorritik Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 55. artikuluan xedatutakoarekin, eta aldaketaren ondoriozko estatutuen testu bategina, bat etorritik Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 42.4 artikuluan xedatutakoarekin.

2022ko urtarrilaren 27an, gorago aipatutako eskaeran adierazitako akatsak zuzentzeko, espedientean dagoen dokumentazioa sartu zen Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren erregistroan.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari dagokio estatutuak aldatzeko espediente hau agindu bidez ebaztea, hauekin bat etorritik: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien eginkizunak eta jardun-arloak zehazten dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Espedienteari funtsezko iritzitako datu eta dokumentu guztiak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 37. eta 51.2 artikuluetan aurreikusitako baldintzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 42. artikuluan aurreikusitakoak. Horrenbestez, estatutuen aldaketa bat dator aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin.

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, agindu honen datarekin, Fundación Torre Olaso izeneko fundazioaren estatutuen 1. artikulua aldatzea eta Olaso Dorrea Fundazioa bilakatzeko izen-aldaketa; betiere, 2021eko azaroaren 9an

2022ko apirilaren 13a, asteazkena

Roberto Oliver Puértolas Bergarako notario jaunaren aurrean egiletsitako eskritura publikoaren zehaztapenekin bat etorriz (protokolo-zenbakia: 1.088). Eskritura hori zuzendu egin zen notario beraren aurrean 2021eko abenduaren 22an egiletsitako beste eskritura osagarri baten bidez (protokolo-zenbakia: 1.292).

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburu honen aurrean, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 30a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.